

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Iñaki Goñi Galarraga

*Errenteria,
Gipuzkoa
(1929)*

Aurkibidea



Biografia



Errenteria-Oreretako Santa Klara kalean jaio zen, zazpi senidetan laugarrena. Gurasoak Errenteriakoak zituen: ama Gabierrotakoa eta aita Malen kalekoa. Aitak "Fundiciones Marqueze"n egin zuen lan hamahiru urtez, eta gero "Banco San Sebastián"en aritu zen erretiroa hartu arte. Aita oso abertzalea zen, jeltzalea eta Batzokiko juntako kidea. 36ko gerran Bilbora egin zuen alde. Bilbo erori zenean bueltatu zen herrira; hasieran, ez zioten lehengo lanean onartu nahi izan, baina gero lortu zuen onartzea. Amak postua zuen plazan (merkatuan) eta Tolosako eta Ordiziako ferian erositako produktuak ekartzen zituen postuan saltzeko. Iñakik Gurutzeko Alabetako mojekin ikasi zuen txikitan, gero Rosaren eskolan ibili zen eta handik fraideetara joan zen hamalau urtera arte. Errenteriako Makazaga inprentan hasi zen lanean: han bertso-liburuxkak eta bertso-paperak egiten zituzten. Lanean ari zela, Pasaia joaten zen arratsetan kontabilitatea ikastera. Makazagatik Urruzola inprentara igaro zen eta hogeita bi urterekin Banco San Sebastianen hasi zen. Geroztik beti aritu izan da bankuan.

Zintak

ERR-027

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-04-30
- **Iraupena:** 79 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

ERR-055

- **Proiektua:** San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bernabe, Sara - Ceballos, Sara
- **Data:** 2016-03-08
- **Iraupena:** 27 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Lekaroz Mazizior, Gorka

Pasarteak

1. Aitaren lanak eta kultura eta politikarekiko zaletasuna

- **Erref:** ERR-027/002
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:01:59. **Bukatu:** 00:04:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

<p>Aita fundizioan hasi zen lanean 13 urte zituela. Soldadutzara joan eta gero, ordea, Banco San Sebastianen egin zuen lan. Gerra garaian, alde egin behar izan zuen herritik nazionalista izateagatik. Aitari irakurtzea asko gustatzen zitzaion, eta politika munduan sartuta egon zen.</p>

Transkripzioa

- Aitak nun iten zun lana?
- Aitak lana, beak esaten zunez, hamahiru urtetan hasi emen zan lanian, hemen izandu zan, Arramenditik aurrera, "Fundiciones Marqueze" deitzen [zioten]. Eta mutil koskorretan han hasi emen zan lanian, "Fundiciones Marqueze". Hamahiru urtekin esaten zun hasi zela.
- Eta gero aldatu in zun lantokia?
- Gero, bai. Gero ya... uste dut sodaduska jun arte. Soldaduska hiru urte Vitoriyan, kaballeriya, "caballería". Eta, uste dut, gero handik ya soldaduskatik etorrita, ba, lanian ya zean, "Banco San Sebastián"-en. "Banco San Sebastián".
- Banko batian iten zun, e?
- Bai, banko batian. Banko batian.
- Eta ya hor jubilatu zan?
- Bai. Bueno, gero gerra-denborak etorri zian, alde in behar izandu zuten hemendik beste askok bezela, gerrako persekuziyoa, oso... oso nazionalistak zian. Beren... Berak ezagutu zuten girua beren lagunnen artian, ta Sabino Arana ta gauza hoiek, eta klaro...
- Osea, PNVkoa edo, ez?
- Bai, bai, bai, bai. Orduan, klaro, orduan nazionalismoa hemen PNV emen zen. PNV emen zen. PNV, klaro, Sabino Arana denbora hartan, pues...Ta berak hori bizittu izandu zuten. Gero Batzokiyan´e sartua egondu zan, ba, juntetan, ba, laguntzen, sekretario bezela batzutan, hauteskundetan-ta mahaiko sekretario ta holako... [partiduan sartua].
- Jarraitzen zun pixkat bat PNVren ildo politikoa [...]. Militantea zan bea.
- Bai, bai, bai, bai, bai, beti. Eta gero izandu zun, gure aitak izandu zun afiziyo haundiya, ez zun... hamahiru urtetan lanian hasita ez zun kultura

mailla, baiño gustatzen zitzaion irakurtzia asko. Liburu asko-ta irakurtzia, ta orduko bizimodu hartako zeak nazionalismoan bueltan ta Sabino Arana hemendik eta Sabino Arana ta mundu hartan, ba, bizittu izandu zien, ba, esaten dena, “a tope”.

2. Aita bertsozale amorratua

- **Erref:** ERR-027/003
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:04:27. **Bukatu:** 00:06:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Bertsoak irakurtzea asko gustatzen zitzaion Iñakiren aitari. Iñakik uste du Txirrita ezagutu zuela herrian egin zitzaion omenaldi batean. Aitak bertsoak buruz ikasten zituen.</p>

Transkripzioa

- Eta berak liburuak erosi-ta iten zitun?
- Bueno, ba... Bueno, klaro, batzuk erosiko zitun, baiño beste batzuk, ba, ez dakit nola lortzen zittun.
- Etxean bazitun liburuak.
- Bai, bai, bai, bai. Igande arratsaldiak-eta gure aittak pasatzen zittun liburuak irakurri ta. Bai, bai, bai, bai.
- Eta zu gogoratzen zea ze liburu zian irakurtzen zitunak?
- Bertsuak´e asko gustatzen [zitzaixkon], asko. Josus! Bertso pilla zakizkiyen! Xenpelarrenak eta. Gero Txirritan eta... Oso bertsozalia zan. Bertsozalia. Oii! Izugarriya, e! Baiño izugarriya! Bizi izandu [zittuen] Txirritan denborako gauzak eta. Eta Xenpelarrenak. Klaro, Xenpelar´e hemen Errenterikua ta buu!.. Xenpelar.
- Haren pasadizuak-eta kontatzen zitun?
- Xenpelar ez zuen ezagutu.
- Igual beste norbaitek beai kontatuta edo...
- Bueno, bai, nik uste dut kontatzen zittula Xenpelarreatatik esaten zien gauza asko. Gero Txirrita´re bai. Txirrita´re... nik, nik uste dut Txirrita´re ezagutu nula. Uste dut, e. Uste dut.
- Ikusia zuk Txirrita.
- Ikusi. Noizpait hemen omenaldin bat eo in zitzaion 1935ian o [ez dakit noiz], hemen omenaldi [zea bat]. Badia argazkiyak ordukuak. Eta nik zerbaitte idea mutil koskorretan-ta zerbaitte idea badut hor, Plaza Fueros deitzen geniyona, Plaza Fueros, hor. [Merkadu bat] izandu zen hortan, [...] omenaldia in zitzaionian ta zerbaitte idea badut nik zerbaitte.
- Esan dezu bertso-liburuak.
- Bertso-liburuak, bai...
- Ze iten zitun irakurri o kantatu?
- Bueno, irakurri, ta memoriz ikasten zittun. Ta gero bazkalondotako girua ta [gero] etxian ta [umore ona ta zerian] ta bertsuak kantatu. Eta beste edozein lagunekin: "Eee... Ez dakit [ze] bertsua" ta "bai" ta gure aittak "Txirritak hau [esaten] zun" ta holakotan, mutilzahar geldittu zela ta soldau ez juteatik mutilzahar geldittu zela ta Txirritan bertso hoiek-eta. Bueno! Hoiek botatzen zittun edozeiñekin! Zer bat, tertuliyen ai ziala "hau ta ez dakit zer", "Baa! ez dakit zer, ta hara Txirritak ze esaten dun" ta hola. Bai. Bertso mundua asko.

3. Batzokiko mitinak eta pilota-partiduak

- **Erref:** ERR-027/004
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:06:45. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Gogoan du batzokian gerra aurretik Manuel Irujok mitina eman zueneko; bera ere han zen, eta badaude egun hartako argazkiak. Irujok gaztelaniaz hitz egiten zuen gehienbat, euskaraz ez baitzen oso ondo moldatzen. Pilota-partiduak ere izaten ziren igande arratsaldetan batzokiko frontoian.

4. Batzokiko antzerki-taldeak

- **Erref:** ERR-027/005
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:10:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Batzokian antzerki-taldeak egoten ziren, eta oso onak omen ziren. Iñakiren osaba bat antzerki-taldeko zuzendari izan zen eta errespetu handia zitzaion, baina gazte hil zen.

5. Familia osoa abertzalea eta gerran ihes egin behar

- **Erref:** ERR-027/006
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:10:44. **Bukatu:** 00:11:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Aitaren aldetik, familia osoa zen abertzalea. Donostian bizi zen aitaren anaia, eta gerran ihes egin behar izan zuen bere seme zaharrenarekin. Semea Ingalaterrara joan zen Bilbotik, "niños de la guerra" delakoen itsasontzian. 19 urte eman zituen han.

6. Mojekin ikasi zuenekoa

- **Erref:** ERR-027/008
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:11:57. **Bukatu:** 00:14:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Gerra hasi zenean, 6-7 urte zituen Iñakik. Eskolan mojekin ikasi zuen. Moja batzuk gogoan ditu: Sor Laura, Sor Maria Begoña, Sor Gabriela... Mojen eskola non zegoen azaltzen du. Mojekin gustura ikasten zuen.

7. Euskara eskolan, etxean eta kalean

- **Erref:** ERR-027/009
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:14:55. **Bukatu:** 00:16:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Mojekin euskaraz ikasten zuten dotrina behintzat. Etxean aitzak euskaraz hitz egiteko esaten zuen, eta lagunartean ere euskaraz egiten zuten besteak euskaraz bazekien behintzat.

8. Kolean jolasean arrosarioaren elizkizuna hasi bitartean

- **Erref:** ERR-027/010
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:16:36. **Bukatu:** 00:18:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Kolean jolasean ibiltzen ziren: pilotan, futbolean, saltoka... Urrian arrosarioaren hilabetea izaten zen; eta egunero elizkizuna izaten zen. Elizkizuna hasi arte, jolasean ibiltzen ziren.

9. Futbolean jokatzeko irrika, baita aldapan zeuden zelaietan ere

- **Erref:** ERR-027/011
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:18:17. **Bukatu:** 00:20:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Futbolean oso gustura aritzen ziren: ostegun arratsaldetan jai izaten zuten eskolan, eta futbol-partidak antolatzen zituzten. Futbolean hainbat lekutan ibiltzen ziren, batzuk leku xelebreak ziren.

10. Jolasteko ohiturak eta auzoen arteko "gerrak"

- **Erref:** ERR-027/013
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:20:43. **Bukatu:** 00:22:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Eskolako lagunak ibiltzen ziren jolasean: mutilak mutilekin eta neskek neskekin. Ostegun arratsaldetan jai izaten zuten eskolan eta "gerrak" egiten zituzten auzoen artean: harrika ibiltzen ziren. Leku askotan jolasten zuten umetan.

11. Herrian izandako aldaketak: eraikuntza gehiago eta ibaiak beste ibilbide bat

- **Erref:** ERR-027/014
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:22:52. **Bukatu:** 00:24:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Herria asko aldatu da beraiek txikiak zirenetik. Ibaia beste leku batetik pasatzen zen; baina ibilbidea desbideratu egin zuten, lehen uholde handiak izaten baitziren.

12. Ama plazan salmentan ibiltzen zen

- **Erref:** ERR-027/015
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:24:35. **Bukatu:** 00:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Iñakiren ama plazan salmentan ibiltzen zen: Ordizia eta Tolosako feriara joaten zen jeneroa erostera, eta Errenteriako plazan saltzen zuen gero. Seme-alabek amari laguntzen zioten gauzak plazara eramaten eta handik etxera ekartzen.

13. "Patxiku kanpa" eta baratzeako lanak

- **Erref:** ERR-027/016
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:26:00. **Bukatu:** 00:28:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserríko lanak » Baserríko animaliak

Laburpena:

Iñakiren etxe inguruan, animaliak edukitzen zituzten etxe baten atzeko zelaian. Zelai hura "Patxiku kanpa" zen eta uholdeak bustitako piezak lehortzeko erabiltzen zuen fabrika batek. "Patxiku kanpa" baratze moduan ere erabiltzen zen; baina Iñakiren familiak ez zuen baratzean lan egiten.

14. Apaiza baratzean eta sagardoa botilatan sartzen

- **Erref:** ERR-027/017
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:28:07. **Bukatu:** 00:31:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Apaiza baratzean lanean ibiltzen zen. Apaiz hari sagardoa asko gustatzen zitzaion, eta urtero ekartzen zioten sagardo ona Arangurendik; lñakik eta beste batzuk lagundu egiten zioten sagardo hura botilatan sartzen. lñakiren aitak, hura ikusitakoan, sagardo-kupela ekarri zuen etxera, egunero pitarra edan ahal izateko.</p>

15. Gerrako tiroketak eta babeslekuak

- **Erref:** ERR-027/019
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:31:52. **Bukatu:** 00:34:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Gerran, erreketek herrian sartu aurretik, aitak lhes egin zuen abertzalea izateagatik zerbait egingo zioten beldurrez. Erreketeen agintariek baserri bat hartu zuten, eta handik errepublikanoen kontrako tiroketak egin zituzten. lñakiren etxean nola-hala babesten ziren; baina, hala ere, tiro bat sartu zitzaion etxera. Gerra garaian, sotoan egoten ziren babesteko.

16. Herrian fusilamendu ugari eta lhes egin zuen jende mordo

- **Erref:** ERR-027/021
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:34:58. **Bukatu:** 00:37:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Erreketeek eta falangistek batzokia hartu zuten eta trantsiziora arte ez zuten utzi. Errenteriako batzokian eduki zituzten atxilotuta bi apaiz eta gero fusilatu egin zituzten. Errenterian jende askok lhes egin zuen itsasoz. lñakiren aita Bilbora joan zen lhesi anaiarekin eta ilobarekin batera; ez zen frontean egon.

17. Errenteriatik Donostiara lhesi, etxean lapurtuko zieten arriskuarekin

- **Erref:** ERR-027/022
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:37:17. **Bukatu:** 00:39:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Iñaki eta bere senideak Donostiara joan ziren gerra garaian osabaren etxera, eta han egon ziren hilabete batzuk. Donostian, Urbieta kalean bizi ziren. Erreteriatik alde egin zuen jendearen etxeetan arpilatzeak (sakeoak) egon ziren. Apaizak (karlistak ez zirenak) kale-jantzian egoten ziren, zerbait egingo zieten beldurrez.

18. Gerrako desfileak Erreterian

- **Erref:** ERR-027/024
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:40:35. **Bukatu:** 00:42:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:

Umea izan arren, gogoan ditu gerrako kontuak: erreketek herrira sartu zirenekoa, besteak beste. Igandero militarren desfilea izaten zen herrian. Gerora, herritarrek ere parte hartzen zuten desfileetan: "Flechas y Pelayos" izena zuten desfile haiek.

19. Eliz mutil izan zenekoa

- **Erref:** ERR-027/026
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:43:23. **Bukatu:** 00:45:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Umetan eliz mutil izan zen eta mezan laguntzen zuen. Egunero izaten ziren mezak.

20. Gerrako eta gerraosteko elikadura

- **Erref:** ERR-027/027
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:45:00. **Bukatu:** 00:47:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra garaian, aita kanpoan zela, amak zaindu zituen 7 seme-alabak. Gerra garaian janaria bazegoen, baina 1940tik aurrera gosete handiak izan ziren. Errazionamenduko ogia lortzen zuten eta taloa egiten zuen amak. Taloa egiteko irina ehotzera ezkutuan joaten ziren errotara. Inoiz guardia zibilek ama kontrabandoko zerbaitekin harrapatu zutenean, kendu egin zioten. Gose garaian, baba jaten zuten.

21. San Juan eta Hondarribitik Erreteriarra arraina saltzera

- **Erref:** ERR-027/028
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:47:54. **Bukatu:** 00:49:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>San Juandik eta Hondarribitik etortzen ziren arrain-saltzaileak: batzuk oinez, besteak trenez. Igande goizetan feria izaten zen Erreterian, inguruko herri guztietatik etortzen ziren. Arrain asko egoten zen orduan. Saltzaileen artean harreman ona zegoen.</p>

22. Padre Olaso entzuteko erosi etxeko lehenengo irratia

- **Erref:** ERR-027/029
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:49:44. **Bukatu:** 00:52:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Etxean nahiko berandu izan zuten lehenengo irratia. Iñakiren aitari don Alberto Onaindia apaiza (Padre Olaso) entzutea asko gustatzen zitzaion: astero Londondik aztertzen zuen Euskal Herriko egoera politikoa. Apaiz hura entzuteagatik erosi zuen aitak irratia.

23. Gerraosteko giro politikoa eta Koldo Mitxelenarekin harremana

- **Erref:** ERR-027/031
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:53:27. **Bukatu:** 00:55:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Gerraostean sinbolo asko debekatuta zeuden, baina Iñakiren aitak ez zuen

alde batera utzi politika; Koldo Mitxelena umetatik ezagutu zuen eta harreman estua zuten. Inakik ere ezagutu zuen Koldo Mitxelena.

24. Rosarenetik fraideetara ikastera

- **Erref:** ERR-027/033
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:56:21. **Bukatu:** 00:57:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Rosarekin ikasi ostean, fraideetan ikasi zuen. Eskola ona zen hura. 14 urtera arte ibili zen han ikasten.</p>

Transkripzioa

- Bueno, eta hor, ordun, Rosan eskolatikan gero ze joten zan...?
- Frailetaa. Frailetaa. Hemen Tellerialdeko "Hermanos Sagrado Corazón" deitzen zitzaioten orden hortaa. Hoiek zuten, hoiek ematen zittuzten eskolak zean, fabrika haundiyak zun pabelloi haitako batean. Haitako zea batean izandu zuten [haik eskola], alkilatua-o zakaten ta. Bueno, eta hortik zenbat jende pasatzen zen! Pasaitik eta Oiartzundik eta Pasai Donibanetik eta honea jende asko etortzen zen eskolaa, zeatik hemen inguruan zen, ba, ya nahiko edadeko 14 urte-15 urte bitarteko eskolik onena, pentsatzen dut. Oiartzungo jende ezagunena, Pasai Antxotikan ´e bai eta Donibanetikan ´e bai ta. Nik asko ezagutzen dittut Donibanetik orduko Sistiaga ta Pedro Etxeberría Ansa, [nola hil zen duela gutxi], musikua ta pintoria-ta zena ta hoik denak eskolan hemen frailetan ezautuak. Frailetan ezautuak. Xipri Manzisidor ta. Jesus!
- Hor hamalau urtera arte?
- Bai, hamalau urtetan ni lanian hasi nitzan ya.

25. Cipriano Fernández Landa

- **Erref:** ERR-027/036
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:59:10. **Bukatu:** 01:00:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Cipriano Fernández Landari buruzko anekdotak kontatzen ditu: lñakiren aitaren maisua izan zen eta "la letra con sangre entra" lemaren aldekoa.</p>

Transkripzioa

- "Plaza Cipriano Fernández Landa". Badakizu zein zen Cipriano Fernández Landa?
- Ez.
- Ba, hor... hor, plaza... plaza badakizu non den, zea hori; hori da "la plaza Cipriano Fernández Landa". "Natural de Matauco". Vitorian sarreran,

Matauco, herri txiki bat. Hangua zan hoi, Cipriano Fernández Landa. Gure aittak... Gure aittan-ta maisua izandua! Gure aittan-ta maisua izandua! Cipriano Fernández Landa. Harrek esaten omen zun: "La letra con sangre entra", orduko! Eta beste gauza bat gure aittak esaten zuna harrek esaten zuna, este... nola da esaera zea? "Acorta la noche y alarga el día. Santa... Santa Lucía".

- Ez dakit nola dan.

- "Santa Lucía, acorta la noche y alarga el día". Harrek esaten omen zun... Uste det esaera normalki esaten dela: "Santa Lucía, acorta la noche y alarga el día", ta harek esaten omen zun: "Corta la noche...", no, "Larga la noche y corto el día". Bueno, bi modutara uste dut gauz bera esan nahi dula.

26. Etxean eta kalean euskaraz

- **Erref:** ERR-027/037
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:00:36. **Bukatu:** 01:01:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Eskolan gaztelaniaz ikasi arren, lagunartean euskaraz hitz egiten zuten. Errenterian izandako apaizak abertzaleak eta euskaltzaleak ziren.</p>

Transkripzioa

- Zuk, edade hortan, hamalau urtekin, eskola erderaz zan.
- Erderaz.
- Euskeraz hitz eiten zenuten zuen artian?
- Bai, geen artian, etxian ta beste lagun askokin´e bai. Imanol Albisu ta nik banittun lagunak giro berekuak, familikuak, eta bai, bai, guk euskeraz hitz eitten genun, oain bezela.
- Kalian elkartzen ziñatenian-eta...
- E?
- Kalian elkartzen ziñatenian-eta [...]?
- Ba, ni [...] Imanolekin eo hola, ba, Imanolekin euskeraz ariko nitzan! Eta "Pottitto"kin euskeraz! Hoi jakin ezkeo euskera bazakiyela. Eta elizan mezak´e... Apaizak, gu bizi giñan etxe hortan ez dakit zenbat bizittu izandu zian, eta denak abertzale... euskera... Don Santiago ta don Angel ta don [Markos] ta don Felipe ta denak euskeraz. Erdera´re bai, e, elizan, erdera´re itten zan, baiño. Guk bittara itten genun, baiño geen artian bagenekiyen, oan bezela, euskaldunak gara, ba, euskeraz.
- Oseake zuk etxian bakarrik ez, etxetik kanpo ere, kalian, euskera erabiltzen zenun.
- Bai, bai, bai, bai.
- Zure adiñekoekin.
- Horixe, horixe, bai.

27. Inprentako lana eta 'Txirristaka' bezeroa

- **Erref:** ERR-027/039

- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 01:04:27. **Bukatu:** 01:06:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Mendaro Txirristakak berak asmatzen zituen bertsoak ekartzen zituen inprentara. Jendea barrez aritzen zen bertso haiekin. Inprentako lana nola izaten zen azaltzen du.</p>

28. Inprentako lan prozesua eta etortzen ziren bertsolariak

- **Erref:** ERR-027/040
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:06:41. **Bukatu:** 01:08:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Makazaga inprentan bertso-liburuak egiten zituzten. Lan-prozesua nolakoa izaten zen azaltzen du. Hainbat bertsolari joaten ziren inprentara bertsoak argitaratzeko: Txirristaka, Zabaleta anaiak, zapiraindarrak...</p>

29. Makazaga inprenta baita gerra aurretik ere

- **Erref:** ERR-027/042
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:09:20. **Bukatu:** 01:10:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Makazaga inprentan ez zuten zuzenean saltzen, baizik eta enkarguak egiten zituzten. Inprenta hura gerra aurretik ere bazegoen, lehenago aldundiarena zen.</p>

30. Inprentako ortografia euskara batua ez zegoen garaian

- **Erref:** ERR-027/043
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:10:56. **Bukatu:** 01:12:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Inprentan letrak banaka-banaka jartzen ziren, eta ortografia ondo zaintzen zuten. Makazagak maila oneko ortografia zuen, baita euskaraz ere. Makazagak ematen zuen molde bakoitzaren onespena.</p>

31. Inprentaren kokapena eta hango lan-baldintzak

- **Erref:** ERR-027/044
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:12:27. **Bukatu:** 01:13:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Makazaga inprenta non zegoen eta inguruan zer denda zeuden azaltzen du. Inprentan larunbatetan ere lan egiten zuten.

32. Inprentatik bankura lanera

- **Erref:** ERR-027/048
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:16:02. **Bukatu:** 01:17:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Banketxeak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Makazagaren inprentatik Urruzolaren inprentara pasa zen lanera. Gerora, soldadutzara joan zen; handik itzulitakoan, 22 urte zituela, bankuan hasi zen lanean eta han ibili izan da erretiroa hartu arte.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com